



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 14a

6. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabakia (27. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

### **Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Tuterako Udalari buruzkoa, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (7. or.).
- III. Norainokoa (7. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (8. or.).
  - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorra (8. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (8. or.).
  - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (8. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (12. or.).
- V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (13. or.).
  - V.1. 2012ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (13. or.).
  - V.2. 2012ko aurrekontu-emaitza bateratua (14. or.).
  - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (14. or.).
  - V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (15. or.).
  - V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua 2012an (16. or.).
- VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (17. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (17. or.).
  - VI.2. Langileak (18. or.).
  - VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (20. or.).
  - VI.4. Finantza-zama (21. or.).
  - VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (21. or.).
  - VI.6. Inbertsioak (22. or.).
  - VI.7. Aurrekontuko diru-sarrerak (23. or.).
  - VI.8. Hirigintza (25. or.).

Eranskina. Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

## I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Tuterako Udalaren eta haren menpeko enteen 2012ko Kontu Orokorren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Tuterako udalerrriak 215 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2012ko urtarrilaren 1ean, 35.358 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Sektore Publiko Administratiboa, Udalak berak eta haren erakunde autonomoa den Uren Batzarrak osatzen dutena. Honakoak dira haren 2012ko datu nagusiak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak 2012	Aitortutako eskubideak 2012	Langileak, 2012-12-31n
Udala	30.863.418	31.890.788	299
Uren Batzarra	2.758.452	3.302.665	27
<b>Guztira</b>	<b>33.621.870</b>	<b>35.193.453</b>	<b>326</b>

2012an Udalak ez dio inolako ekarpenik egin Uren Batzarrari.

- Enpresen Sektore Publikoa. Udalak Castel-Ruiz entitate publiko enpresarialaren jabetza osoa dauka. Entitate horrek zortzi langile dauzka 2012ko abenduaren 31n.

Udalak, 2012an, 1.033.673 euro eman dizkio entitate horri.

2012an, bateratuta aurkeztu ziren Udalaren eta haren erakunde autonomoaren eta enpresa-entitatearen kontuak. Bateratze horren aurrekontu-datu nagusiak honako taula honetan azaltzen dira:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aitortutako eskubideak (2012)
Udala	30.863.418	31.890.788
Uren Batzarra	2.758.452	3.302.665
Castel-Ruiz entitate publiko enpresariala	1.575.929	1.608.194
-Bateratzearen doitzeak	-1.033.673	-1.033.673
<b>Guztira</b>	<b>34.164.125</b>	<b>35.767.973</b>

• Fundazioen Sektore Publikoa. Udalak honako fundazio hauek eratu ditu: Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa eta María Forcada Fundazioa. 2012an datu ekonomiko hauek dituzte (emaitzen kontua):

Fundazio publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak, 2012-12-31n
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	364.695	352.866	11.830	8
María Forcada fundazioa	47.805	153.746	-105.941	0

2012an, Udalak guztira 126.000 euro eman dizkio Dédalo Fundazioari.

Udalak, gainera, patroi gisa parte hartzen du honako fundazio hauetan:

- Miguel Eza
- Real Casa de Misericordia
- Manuel de Castel-Ruiz

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Erriberako Mankomunitatea, zeinak hondakinak biltzeko eta etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko zerbitzua eta lazareto zerbitzua ematen dituen.

b) UHUN Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Tuterako ikastetxe elkartua.

c) Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa.

d) Nafarroako Erribera garatzeko estrategien partzuergoa (EDER).

e) "Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.

Zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2012an
Erriberako Mankomunitatea	43.916
Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa.	43.362
Nafarroako Erribera garatzeko estrategien partzuergoa (EDER).	68.542
"Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.	14.000

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoa	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean	X				
Musika-eskola	X				
Hirigintza	X				
Lorategiak				X	
Hiri-hondakinak			X		
Ur-hornidura		X			
Garraio publikoa				X	
Liburutegia	X				
Ludoteka	X				
Kontsumitzailearen arreta zerbitzua	X				
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X				
Kirol arloa	X				X
Kirol jardueren kudeaketa				X	
Udal Kiroldegiak	X				
Babestutako enplegu soziala	X				
Diru-bilketa exekutiboa				X	
Familien Arreta Zentroa	X				
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X				

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorrak Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege-dekretua, enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

2/2012 Legea, ekainaren 29koa, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berariazko araubidea.

Tuterako Udalaren 2012ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauak.

Castel-Ruiz Entitate Publiko Enpresarialak bere estatutuei jarraitzen die, bai eta toki-erregimeneko araudian ezarritakoari eta indarrean dagoen merkataritza-arauari ere; hau da, Merkataritza Kodeari, Kapital Sozietateei buruzko Legeari eta Kontabilitatearen Plan Orokorriari.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2012ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2012ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tuterako Udaleko, bere erakunde autonomoko, Castel-Ruiz entitate publiko enpresarialeko eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia eta ondorioak agertzea:

- Ea Tuterako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- 2012an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino bete den.
- Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2011ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA

Tuterako Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Castel-Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala, erakunde autonomoa eta Castel-Ruiz), oroitidazkia, zorraren egoera-orria eta fundazioen urteko kontuak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak ebaluatu dira.

Kanpoko profesionalak finantzen eta legezkotasunaren kontu-ikuskaritza bat egin dute Castel-Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren 2012ko urteko kontuei buruz, eta haien iritzia aldekoa izan da.

#### IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenarekin bat, Tuterako Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

##### IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ez daude erregistratuta funtzionarioen pentsio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago 1993tik ez dela jarduneko langilerik afiliatu sistema horretan. Udalak pentsioengatiko konpromisoak buruzko balioespen finantzario-aktuariala egin du, pasiboak zein aktiboak dagokienez. Konpromiso horiek, lan-hipotesien arabera, 59.464.748 euro egiten dute.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinengatik leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzeko den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, 2012ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz egin dela esan daiteke.

##### IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n

Hasierako aurrekontu bateratuak (Udala, Uren Batzarra eta Castel-Ruiz) 37,57 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 7,5 –hau da, 2,83 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez; horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 40,40 milioikoak dira. Aldaketa horiek honako bitartez egin dira: aurreko ekitaldietako inbertsioaren gerakinak (Udalaren 1,96 milioi euro eta Uren Batzarraren 829.000 euro) eta Udalaren 42.425 euroko transferentziak.

Aitortutako betebeharrak 34,16 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 85eko betetze-maila izan dute. Maila hori justifikatzen da inbertsioaren ehuneko 50 bainik ez delako bete, obrak geraraztearen eta geroraztearen ondorioz, krisi ekonomikoa dela-eta gastuei eusteko dagoen politikari jarraituz. Betetze-maila handiena langile-gastuen kapituluari dagokio: ehuneko 92koa. Transferentzien atalak, berriz, honela bete dira: transferentzia arruntak ehuneko 63 bete dira; eta kapital-transferentziak, berriz, ehuneko 27.

Aitortutako eskubideek 35,77 milioi egiten dute, ehuneko 89ko betetze-mailarekin. Ehuneko horren arrazoia izan daiteke, funtsean, kapital-transferentzia gutxiago izan direla; transferentzia horiek, bestalde, ehuneko 39 bete dira.

Gastuen izaerari begiratu gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 89 eta ehuneko 6 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 98 dira; diru-sarreraren ehuneko 35, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 34 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 1 kapital-transferentzietatik).



Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzaketa-iturria	Ehunekoa
Langileak	44	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	44	Transferentziak	35
Inbertsioak	5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	5
Finantza-zama	7	Zorpetzea	0
<b>Guztira</b>	<b>100</b>		<b>100</b>

Hona 2012rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2011tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2011	2012	Aldea ( % ) 2012/2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	40.303.398	34.164.125	-15
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	38.483.233	32.399.650	-16
Likidatutako eskubideak, guztira	36.297.158	35.767.973	-1
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	36.297.158	35.767.973	-1
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	34.265.120	30.469.365	-11
Funtzionamendu-gastuak (1., 2., eta 4. kapituluak)	33.587.849	29.660.343	-12
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	4.218.113	1.930.285	-54
Finantza-eragiketen gastuak (8.a eta 9.a)	1.820.165	1.764.475	-3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	34.803.074	35.110.739	1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	20.419.946	21.253.369	4
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	-
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	39	35	-
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	60	70	-
Saldo ez-finantzarioa	-2.186.075	3.368.323	-254
Aurrekontu-emaizta doituia	-1.540.929	1.153.670	-175
Aurrezki gordina	1.215.225	5.450.396	349
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	2.497.436	2.573.496	3
Aurrezki garbia	-1.282.211	2.876.900	-324
Zorpetze-mailaren ehunekoa	7,18	7,33	-
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	3,49	15,52	-
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	-3,68	8,19	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	5.585.786	6.377.522	14
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-7.977.965	-6.730.289	-16
Zor bizia	43.264.036	41.499.562	-4
Diru-sarrera arrunten gaineko zor biziaren ehunekoa	124	118	-
Zor bizia biztanleko	1.227	1.174	-4
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	35,6	8	-

2012an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 15 gutxiago gastatu du, eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 1 gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu. Beherakada horren arrazoia da inbertsioetan eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastu txikiagoak justifikatu direla, egoera ekonomikoaren ondorioz. Diru-sarrerei dagokienez, beherakada ez da hain garrantzitsua izan, zeren eta transferentzia arrunten eta kapital-transferentzia txikiagoen eragina tributu-bidezko diru-sarrera handiagoekin konpentsatu baita.

Gastu arruntetan ehuneko 11ko urritzea izan da; eta diru-sarrera arruntetan, aldiz, ehuneko 1eko hazkundea. Gastu arruntetan izandako murrizketaren arrazoia, nagusiki, ondasun arrunt eta zerbitzuen arloko gastuak jaitea izan da.

Aurrekontu-emaizta doituak 1,15 milioiko superabita erakusten du; aurreko urtean, berriz, 1,54 milioiko defizita izan zuen.

2012an, aurrezki gordin bateratua 5,45 milioi eurokoa izan zen; aurrezki garbiak, berriz, 2,8 milioi euroko saldoa izan zuen. 2011ko ekitaldian, magnitude horiek 1,21 milioiko eta -1,2 milioiko saldoa izan zuten, hurrenez hurren.

Zorpetze maila ehuneko 7,33koa da; zorpetze-muga, berriz, ehuneko 15,52koa.

Diruzaintza-gerakina 6,37 milioikoa da guztira; 2011ko ekitaldian, berriz, 5,58 milioikoa izan zen. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak negatiboa izaten jarraitzen du, -6,730 milioi eurokoa (-7,977 milioi eurokoa izan zen 2011n).

Epe luzeko zorra 41 milioi eurokoa da; 2011n, berriz, 43 milioi eurokoa izan zen. Zor horrek – zeina 1.174 eurokoa baita biztanle bakoitzeko – entitatearen diru-sarrera arrunten gutzitzaioaren ehuneko 118 egiten du. Portzentaje hori gaur egun zorpetze berria baldintzatzen duen ehuneko 110eko legezko mugaren gainetik dago.

Zehaztu beharra dago legezko muga hori Estatuko araudiak ezartzen duela, baina Udalak jada lehendik zorra itundua zuela eta inbertsio batzuk eginak zituela. Muga hori gainditzen duenez, Udalak ezin du beste inbertsiorik egin, guztiz finantzatuta ez badaude. 2012an zorpetze berririk hartu ez bada ere, 2008tik 2010erako ekitaldietan abian izan diren eta amaituta dauden inbertsioak finantzatzera bideratutako 8,7 milioi euroko mailegu formalizatu gabeak erantsiko balira, guztizko zorpetzea 49 milioi eurokoa izanen litzateke.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

## Aitortutako betebeharrak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	13.692.505	14.089.723	15.881.086	16.211.412	16.300.731	16.343.899	15.216.656
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	12.617.839	14.270.333	16.014.595	16.782.862	14.359.819	15.298.619	13.119.361
3. Finantza-gastuak	391.564	293.075	513.833	334.667	590.990	677.271	809.022
4. Transferentzia arruntak	2.059.306	1.865.226	1.970.854	2.485.303	3.235.794	1.945.330	1.324.326
6. Inbertsio errealak	6.842.171	12.331.140	10.440.559	14.782.090	10.021.835	4.102.892	1.844.117
7. Kapital-transferentziak	172.934	311.864	222.557	437.797	113.485	115.221	86.168
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	1.333.827	1.259.165	1.184.685	1.184.651	1.192.731	1.820.165	1.764.475
<b>Guztira</b>	<b>37.110.145</b>	<b>44.420.526</b>	<b>46.228.169</b>	<b>52.218.782</b>	<b>45.815.386</b>	<b>40.303.398</b>	<b>34.164.125</b>

## Aitortutako eskubideak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	9.045.491	8.428.646	10.216.912	10.347.341	10.656.364	10.854.322	11.358.934
2. Zeharkako zergak	2.071.829	4.159.294	1.892.383	1.210.524	1.407.143	812.044	841.519
3. Tasak eta bestelako diru-	8.271.187	8.706.111	8.266.895	8.295.911	8.578.030	8.753.581	9.052.916
4. Transferentzia arruntak	11.675.154	12.505.552	14.060.542	13.475.030	13.946.140	13.023.772	12.192.098
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	2.132.484	1.926.230	2.151.926	1.979.983	1.678.696	1.359.356	1.665.273
6. Inbertsio errealak besterentzea	78.368	629.502	399.530	1.980	2.382.173	333.915	274.619
7. Kapital-transferentziak	2.650.419	2.924.634	2.617.566	7.452.436	6.651.769	1.160.170	382.615
8. Finantza-aktiboak	0	0	75	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	230.503	12.000.000	0	11.200.000	12.104.658	0	0
<b>Guztira</b>	<b>36.155.436</b>	<b>51.279.969</b>	<b>39.605.828</b>	<b>53.963.204</b>	<b>57.404.972</b>	<b>36.297.158</b>	<b>35.767.973</b>

Aurreko taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2009ra arte igoera bat gertatu da gastuetan, eta gero nabarmentzeko moduko beherakada bat gertatu da. Hartara, 2012ko gastua 2006koa baino txikiagoa da. Ikusten da 2009tik aurrera gastu arruntari eutsi egin zaiola, eta 2012tik aurrera, berriz, inbertsioak asko murriztu direla.

Diru-sarreraren aldetik, ikusten da zuzeneko zergak etengabe igo direla, zeharkako zergak (EIOZa) jaitsi direla eta kapital-transferentziak, bereziki 2012an, logikoa denez, jaitsi direla, egiten diren inbertsioei lotuta baitaude. Nabarmendu behar dugu ez 2011n, ez 2012an, ez dela finantza-pasiboaren bidezko diru-sarrerarik izan. Aurrekontu-bilakaera horrek bidea eman du 2012an aurrezki garbi positiboa edukitzeko, nahiz eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina negatiboa izan, -6,3 milioikoa hain zuzen.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, ikusten da Udalaren kontuek hobera egin dutela. Hala eta guztiz ere, zorraren bolumenak eta diruzaintza-gerakin negatiboa izateak Udalaren jarduteko gaitasuna mugatu dute.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak egindakoa da–. Emaizta hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko gastuak, guztira	32.399.650
I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko diru-sarrerak, guztira	35.767.973
Aurrekontu-emaiza ez finantzarioa	3.368.323
<b>Finantzatzeko ahalmena</b>	<b>3.368.323</b>

Horrenbestez, ikusten da Tuterako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen dituela, baina ez finantza-iraunkortasunari buruzkoak, zeren eta zorra ezarritako muga baino handiagoa baita.

Hala eta guztiz ere, kontu-hartzaileak dioen bezala, nabarmendu beharra dago "Udalaren Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 28an, 2009ko kontuen itxieran agerian jarritako egoera ekonomiko-finantzarioaren aurrean eta mailegu-eragiketa bat ituntzeko beharra zela-eta, 2010-2015 urteetarako saneamendu plan bat onetsi zuen. Plan horretan gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak ezarri ziren, bai eta jarritako helburuak lortzeko ekitaldiz ekitaldi erdietsi beharreko emaitzak ere.

Krisi ekonomikoak bere horretan irauteak jardueran eragindako jaitsierak berarekin ekarri du, emaitzen helburuak ahaztu gabe, egungo egoeraren arabera gaurkotu behar izatea bai diru-sarreraren zenbatekoak, bai gastuenak. 2012ko itxieran lortutako emaitzak aztertuta, ikusten dugu bai gastuak, bai diru-sarrerak planeko aurreikuspenak baino txikiagoak izan direla: ehuneko 90,5 eta ehuneko 90,7, hurrenez hurren. Aurreikusita zegoen 467.000 euroko emaitza positiboa izatea, baina egiazki lortu den emaitza 512.825 eurokoa izan da. Hori dela eta, jo daiteke 2012an planaren helburua lortu dela. Zorpetze-maila ehuneko 8,8koa izatea planteatzen zen, baina ehuneko 8,1koa izan da. Magnitude horrek zorpetzeari buruzko egungo araudiaren eraginez egin du behera".

Fiskalizazioari buruzko gure iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen ziurgabetasuna, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oro har, aplikatzen ari dira Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak. Txostenean zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak.

### 3 V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2012ko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala gehi erakunde autonomoa gehi entitate publiko enpresariala).

#### V.1. 2012ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	16.602.200	-5.962	16.596.238	15.216.656	92	14.344.474	872.181	6
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	14.514.781	353.037	14.867.818	13.119.361	88	11.069.290	2.050.071	16
3. Finantza-gastuak	1.373.654	-384.016	989.638	809.022	82	777.994	31.028	4
4. Transferentzia arruntak	2.107.573	0	2.107.573	1.324.326	63	1.060.078	264.249	20
6. Inbertsio errealak	905.204	2.852.774	3.757.978	1.844.117	49	1.344.992	499.126	27
7. Kapital-transferentziak	300.000	14.300	314.300	86.168	27	83.461	2.707	3
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	-	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	1.766.068	0	1.766.068	1.764.475	100	1.764.475	0	-
<b>Guztira</b>	<b>37.569.480</b>	<b>2.830.133</b>	<b>40.399.613</b>	<b>34.164.125</b>	<b>85</b>	<b>30.444.763</b>	<b>3.719.361</b>	<b>11</b>

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Behin betiko aurreikuspena kreditua	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	11.461.600	0	11.461.600	11.358.934	99	10.550.244	808.690	7
2. Zeharkako zergak	1.000.000	0	1.000.000	841.519	84	534.333	307.186	36
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	8.761.226	0	8.761.226	9.052.916	103	7.584.464	1.468.452	16
4. Transferentzia arruntak	13.855.150	0	13.855.150	12.192.098	88	11.739.083	453.015	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.641.000	0	1.641.000	1.665.273	101	1.482.985	182.287	11
6. Inbertsio errealak besterentzea	1.000	0	1.000	274.619	27462	274.619	0	-
7. Kapital-transferentziak	0	984.775	984.775	382.615	39	263.573	119.042	31
8. Finantza-aktiboak	849.504	-7.539.597	6.690.093	0	0	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	9.384.954	9.384.954	0	0	0	0	-
<b>Guztira</b>	<b>37.569.480</b>	<b>2.830.133</b>	<b>40.399.613</b>	<b>35.767.973</b>	<b>89</b>	<b>32.429.301</b>	<b>3.338.673</b>	<b>9</b>

## V.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2011	2012
+ Aitortutako eskubideak	36.297.158	35.767.973
- Aitortutako betebeharrak	40.303.398	34.164.125
<b>= Aurrekontuaren emaitza</b>	<b>-4.006.240</b>	<b>1.603.848</b>
<b>Doikuntzak</b>		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	115.685	373.634
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	8.432.702	7.131.483
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzaturiko gastuak		
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-5.851.707	-7.208.028
<b>= Aurrekontu-emaitza doitua</b>	<b>-1.540.929</b>	<b>1.153.670</b>

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012KO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2011	2012
(+) Kobratzeke dauden eskubideak	3.651.887	3.676.279
(+) Sarrerak: aurtengo ekitaldia	3.271.602	3.338.673
(+) Sarrerak: itxitako ekitaldiak	3.887.066	3.372.677
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	528.182	366.440
(+) Gastuen itzulketak	0	3.568
(-) Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-245.279	-114.508
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-3.789.683	-3.290.572
(-) Ordaintzeke dauden obligazioak	5.684.758	5.779.467
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	3.450.304	3.719.361
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	597.665	638.428
(+) Diru-sarreraren aurrekontua	97.521	149.324
(+) Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	399.241	417.495
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.181.925	894.332
(-) Aplikatzeke dauden gastuak	-41.898	-39.474
(+) Diruzaintzako funts likidoak	7.618.656	8.480.710
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
<b>= Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>5.585.786</b>	<b>6.377.522</b>
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	13.563.750	13.107.811
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-7.977.965	-6.370.289

## V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## Jardunean

Deskribapena	2012	2011
<b>A. Ibilgetua</b>	127.591.116	128.828.813
1 Ibilgetu materiala	105.551.868	105.846.724
2 Ibilgetu ez-materiala	213.141	215.626
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	4.444.293	5.384.648
4 Herri-ondasunak	17.375.324	17.375.324
5 Finantza-ibilgetua	6.491	6.491
<b>C Ibilkorra</b>	15.738.127	15.448.632
7 Izakinak	140.153	101.229
8 Zordunak	7.077.790	7.686.445
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	39.474	42.302
10 Finantza-kontuak	8.480.710	7.618.656
<b>Aktiboa, guztira</b>	143.329.243	144.277.445

## Pasiboa

Deskribapena	2012	2011
<b>A Funts berekiak</b>	90.255.179	88.915.465
1 Ondarea eta erreserbak	22.912.647	26.367.050
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	1.034.071	-4.681.999
3 Kapitaleko diru-laguntzak	66.308.289	67.230.414
<b>B Arrisku eta gastuetarako hornidurak</b>	3.290.572	3.789.683
4 Hornidurak	3.290.572	3.789.683
<b>C Epe luzeko hartzekodunak</b>	42.403.555	44.144.526
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	42.403.555	44.144.526
<b>D Epe laburreko hartzekodunak</b>	7.380.110	7.427.771
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	5.815.372	5.726.656
<b>6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak</b>	1.564.738	1.701.115
<b>Pasiboa, guztira</b>	143.329.243	144.277.445

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2012an

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
3 Hasierako izakinak	101.229	101.436	3 Bukaerako erosketak	140.153	101.229
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak	90.925	90.246	70 Salmentak	6.247.696	6.466.700
61 Langileen gastuak	13.547.664	14.689.944	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	3.910.795	3.345.899
62 Gastu finantzarioak	803.416	677.508	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributua	10.105.755	9.558.390
63 Zergak	250	570	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	1.744.298	1.681.975
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	12.909.693	15.097.223	74 Ibilgetuko diru-laguntzen egozpena	84.167	64.491
65 Gizarte-prestazioak	1.787.484	1.764.546	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	12.039.880	13.022.472
67 Transferentzia arruntak	1.324.326	3.205.330	77 Kapitalaren gaineko zergak	350.401	426.000
68 Kapital-transferentziak	86.168	115.221	78 Bestelako diru-sarrerak	581.589	721.348
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	3.829.793	4.232.992	79 Beren helbururako aplikaturiko hornikuntzak	3.905	11.081
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	727.689		Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	4.575.431
<b>Guztira</b>	<b>35.208.638</b>	<b>39.975.017</b>	<b>Guztira</b>	<b>35.208.638</b>	<b>39.975.017</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)		4.575.431	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	727.689	0
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	78	173.609	82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	269.977	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)		0	83 Balore-karteraren emaitzak (Saldo hartzekoduna)		0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldea (saldo zorduna)	808	2.197	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldea (saldo hartzekoduna)	37.292	69.238
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	1.034.071	0	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	0	4.681.999
<b>Guztira</b>	<b>1.034.958</b>	<b>4.751.237</b>	<b>Guztira</b>	<b>1.034.958</b>	<b>4.751.237</b>



## **VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek (erakundea autonomoak, enpresak eta fundazio publikoak) beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

### **VI.1. ALDERDI OROKORRAK**

- Ez da aurkitu 2012ko fakturen zenbateko garrantzitsurik 2013ko aurrekontuari egotzi zaionik.
- 0,4 milioi euro egiten duten fidantza batzuk badaude, baina egiaztatzeke dago haiek indarrean dauden.
  - 2012ko abenduaren 31n, hornitzaileei 75 eguneko muga pasata ordaintzeke zegoen zenbatekoa 893.848 eurokoa zen Udalaren kasuan, eta 1.542 eurokoa, berriz, Uren Batzarraren kasuan. Doikuntza nagusiak, 489.000 euro egiten dutenak, prozedura judizialean dauden gaiei dagozkie. 2013ko ekainaren 13an, 2012 ekitalditik 75 eguneko muga pasata ordaintzeke zegoen zenbatekoa 619.255 eurokoa zen. Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak. Ez dago jasota Udalak inongo zenbatekorik ordaindu duenik ordainketetan berandutzeagatik.
  - Egiaztatu dugu kontu-hartzaileak zenbait eragozpen-ohar egin dituela. Honako gaiei buruzkoak dira, besteak beste: langile-kontuak, aparteko orduak eta jaietako gastuak. Halaber, egiaztatu dugu beren exekuzioan arazoak sortzen dituzten kontratazio batzuk badaudela, eta, kasuren batean, baldintza-orrietan dauden akatsak tarteko, kontratuari uko egin zaiola, bi aldeak ados jarrita, eta lizitazioa berriz ere egin behar izan dela.
  - Udala eta haren erakunde autonomoa zenbait prozedura judizialean sarturik daude. Ez dakigu haren ondorio ekonomikoek Kontu Orokorretan eragin ekonomiko esanguratsurik izanen duten. Udaletik jasotako informazioaren arabera, 2013ko apirilaren 15ean, 105 dira zenbait instantziaren aurrean aurkeztuta dauden errekurtsioak. Aurkeztutakoen aretan daude nahitaezko desjabetzei buruzko hiru espedientetan ezarritako balio justuen aurkakoak, milioi bat euro egiten dutenak. Halaber, aurkeztutako errekurtsioen kopurua dela-eta, nabarmentzekoak dira telefono mugikorren konpainia batzuek aurkeztutakoak, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobeixamendu bereziaren tasari buruzko ordenantza fiskala dela-eta.

#### *Gure aholkuak:*

- *Fidantzen saldoaren indarraldia berrikustea eta, kasua bada, hura erregularizatzea.*
- *Gastuen espedienteak egiterakoan zorroztasun handiagoz jokatzeko, halako moduz non kontu-hartzailetzaren eragozpen-oharrak saihestuko diren eta baldintza-orrietan jasoko diren kontratazioak egiteko behar diren beharrezan eta baldintza guztiak.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 15,22 milioi eurokoa da; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 45 eta gastu arrunten ehuneko 50.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 7 gutxitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%),
	2011	2012	
Goi-karguak	159.213	145.751	-8
Kabineteetako behin-behineko langileak	240.535	171.321	-29
Funtzionarioak	7.027.126	6.458.735	-8
Langile kontratadunak	4.149.860	3.176.393	-23
Bestelako langileak	0	603.589	-
Gizarte zamak	4.767.166	4.660.867	-2
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>16.343.900</b>	<b>15.216.656</b>	<b>-7</b>

Taulan nabarmentzen da 2012an "bestelako langileak" atalpean aitortutako gastua, non erregistratu baita 2012ko abenduko aparteko soldata. Gainerako aldeak honakoen ondorioa dira: zenbait erretiro (funtzionarioenak), lanpostu batzuen amortizazioak, lanaldi murrizketa batzuk (lan-kontratupekoenak) eta arloko zuzendaritzak gutxitzea.

Udalaren Osoko Bilkurak 2012ko martxoan onetsi zuen urte horretako plantilla organikoa. Urte bereko urrian, Nafarroako Administrazio Auzitegiak, 6.068 eta 6.174 zenbakiko ebazpenen bitartez, bi errekurtsio baietsi zituen, langileen ordezkariak eta zinegotzi batzuek aurkeztutakoak, eta baliogabe jo zuen plantilla onesteari buruzko erabakia, zuzenbidearen arabera ez izateagatik. Gero, 2013ko ekainean, 2012ko plantilla onetsi zen.

Azken urte hauetan, zailtasunak izan ditugu plantillaren datuak eta lanpostuen zerrendak erkatzeko. Egoera hori sortu da, besteak beste, honako hauen ondorioz:

- Batzuetan gertatzen da pertsona batzuek lanpostu batzuk jabetzan dauzkatela, baina beste lanpostu batean jarduten dutela (zerbitzu berezietan).
- Lanpostu batzuk bi pertsonak partekatzen dituzte.
- Plantillako datuak eta lanpostuen zerrenda alderatuz gero, alde batzuk badaude datetan.

2012ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoan 336 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz	Guztira
Udal-batzarkideak	5	1	1	7
Aldi baterako langileak - Izendapen askea	3	1	1	5
Funtzionarioak	191	24	4	219
Lan-kontratadun finkoak	18	1	1	20
Aldi baterako lan-kontratadunak	75	6	4	85
<b>Guztira</b>	<b>292</b>	<b>33</b>	<b>11</b>	<b>336</b>

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Kabinetea	4
Idazkaritza Nagusia	3
Ebakuntza	5
Artxibatuak	5
Aholkularitza Juridikoa	2
Udaltzaingoa	65
Antolaketa, kalitatea eta herritarren arreta	11
Langileak	7
IKTak	3
Sustapena eta berrikuntza	5
Ogasuna	21
Kirolak, hezkuntza, gazteria eta gizarte etxeak, gizarte gaiak eta emakumea	108
Lurraldearen antolamendua	25
Musika eskola	23
<b>Guztira</b>	<b>287</b>

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. Egiaztatu dugu, halaber, 2012ko ekitaldian ez dela izan langileen eta zinegotzien soldata-igoerarik.

Udalak ez zien bere langileei abenduko aparteko soldata ordaindu, Aurrekontu-egonkortasuna Bermatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta. Soldata horren zenbatekoa aitortutako betebeharrak gisa sartu zen, eta ordaintzeke bezala jasota dago.

Bestalde, eragozpen-oharrak eta kontratuen analisisa aztertuta, egiaztatu dugu oposizioetako zerrenda gehienak iraungita daudela.

Bestalde, egiaztatu dira zinegotzietan 2012an sortutako dieten kontzeptuan –osoko bilkuretara, tokiko gobernu batzarrerara, batzordeetara eta abarretara joateagatik– egindako ordainketak, zeinak 2003ko araudi batean araututa baitaude. Izan ere, honakoa xedatzen du arauak:

“Kargua arduraldi partzialeko araubidean betetzen ez duten zinegotziak: hilero bertaratzeengatik ordainketak jasoko dituzte, partaide direneko organo kolegiatuetako bilkuretara egiazki joateagatik; gaur arte egon diren igoerekin, jaitsierekin eta izozteekin, honakoak dira zenbatekoak:

- Udalaren osoko bilkura, 161 euro.
- Gobernu batzarra, 97 euro.
- Batzordeak, 97 euro.
- Bestelako organoak, 81 euro.

Bertaratzeak kobratzeko hileko gehieneko mugak honakoak izanen dira:

- Esku-ordetze berezia duten zinegotziak, 912 euro.
- Gobernu batzarreko kideak, 804 euro.
- Gainerako zinegotziak, 643 euro.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran, egiazki kobratutako bertaratzeak erregularizatuko dira, halako moduz non hileko muga gainditu delako jaso ez diren zenbatekoekin osatuko baitira gehieneko zenbatekoa erdietsi ez zen hileetako ordainketak”.

Araudi horren arabera, zinegotziek 2012an guztira jasotako ordaina 106.716 eurokoa da, eta ez da aurkitu Udalaren barne araudiaren ez-betetzetik.

Eskuordetze orokorra duten zinegotzientzat eta Castel-Ruiz kultur etxeko buruarentzat, araudiak ezartzen du kargua arduraldi partzialeko araubidean beteko dutela, astean 20 orduz, eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta emanen zaiela. Udalak bere gain hartuko du kasuko enpresa-kuotaren ordainketa. Urteko ordainsari gordin gaurkotua 19.207 eurokoa izanen da, 12 hileko ordainketatan ordaindua.

2012an, zinegotzi horiek 76.647 euro jaso zituzten.

Erregelamendu organikoak honakoa ezartzen du:

“Alkate kargua arduraldi osokotzat jotzen da. Ordainsari gisa A mailako funtzionarioari dagokiona gehi maila horren ehuneko 91,25eko osagarria jasoko ditu”.

Alkateak bere soldata jaitsi zuen eta urtean 46.066 eurokoa izanen zela ezarri zuen: A mailako soldata gehi ehuneko 82,21eko osagarria, hain zuzen.

2012an, alkateak 42.775 euro kobratu zituen, zeren eta abenduan ez baitzuen aparteko soldatarik jaso.

Gure aholkuak:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatze eta plantillako datuak Udalean egiazki lan egiten duten pertsonekin erkatu ahal izateko.*

- Baimen-, jarraipen- eta kontrol-prozedura bat ezartzea bai ordaintzen diren bai atsedendenborarekin konpentsatzen diren aparteko orduetarako.

### VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 13,12 milioi euro egin dute 2012ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 38 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 43 egiten dute. 2011. urtearen aldean, ehuneko 14 jaitsi da.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontrol Kontratua	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	Gauzatua 2012an
Eraikinak garbitzea	Laguntza	Irekia; lehiaketa; European publizitaterik egin gabe; eskaintza onena	2.643.750	1	2.635.819	439.303 <sup>1</sup>
Energia elektrikoaren hornidura, goi tentsioa	Hornidura	Negoziatua, lehiaketa; European publizitaterik egin gabe; eskaintza onena	1.981.638	3	1.531.431	200.878- <sup>2</sup>

<sup>1</sup> 3 urterako esleitua. Urteko gastua 878.606 eurokoa da. 2012an, kontratua 2012-07-01ean hasi zen.

<sup>2</sup> Urtebeteko kontratua + urtebeteko luzapena. Kontratua 2012-08-01ean hasi zen.

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu da, bai eta kontratuen indarraldiak zuzenak direla ere.

#### VI.4. FINANTZA-ZAMA

Finantza-zamaren gastuek (interesak gehi zorraren amortizazioa) 2,57 milioi egin dute, eta 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 8 dira. 2011rekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 3 egin dute gora.

Hona gastu horien xehekako azalpena:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2011	2012	2011/2012
Maileguen interesak	677.211	809.022	19
Maileguen amortizazioa	1.820.165	1.764.475	-3

Izaera hori duten gastuak gastuen aurrekontu-exekuzioaren ehuneko 7,5 egiten dute.

Hartara, honakoa da epe luzeko zorraren amortizazioen egutegia –gehienetan, hitzartutako maileguak 20 urteko eperako izan dira–:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2.013	2.448.251	6	6
2.014	3.032.522	7	13
2.015	2.982.856	7	20
2016-2020	13.149.338	32	52
2021-2025	10.899.189	26	78
2025-2030	8.987.405	22	100
<b>Guztira</b>	<b>41.499.561</b>	<b>100</b>	

Horrenbestez, 2015era arte, zorraren ehuneko 20 amortizatu izanen da. Hurrengo urteetako aurrekontuekin zorraren gainerakoari egin beharko zaio aurre.

#### VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 1,41 milioikoak izan dira. 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 4, transferentzia arrunten ehuneko 3,8 eta kapital-transferentzien ehuneko 0,2 egiten dute.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2011	2012	2011/2012
Toki entitateei	43.628	43.916	1
Enpresa pribatuei	115.051	102.103	-11
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	1.786.651	1.178.308	-34
4. Transferentzia arruntak	1.945.330	1.324.327	-32
Toki entitateei	-	3.761	-
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	115.221	82.407	-28
7. Kapital-transferentziak	115.221	86.168	-25

2011rekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 32 egin dute behera, funtsean irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako diru-laguntzek behera egin dutelako, kostuak gutxitzeko helburuaren ondorioz.

Honakoak dira 2012an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Kopurua
Castel-Ruiz	1.033.673
Renfe	82.398
Etxez etxeko laguntzarako laguntzak	222.794
UHUNen Kalitatearen Kudeaketaren katedra	59.995
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	126.000

Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik, ez eta ordenantza orokorrik ere, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean araututakoa gorabehera. Udalak ez du ez diru-laguntzen plan estrategikorik, ez eta ordenantza orokorrik ere. Kontu-hartzaileak nabarmendu izan du inguruabar hori zenbait txostenetan. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak emateko berriazko ordenantza batzuk badaude, nahiz eta haietako batzuk –bereziki, gizarte zerbitzuen– antzinakoak diren eta egungo premien arabera egokitu beharko liratekeen.

Egiaztatu da Kontu-hartzailetzaren arloak egiten duen barne-kontrolak zuzen funtzionatzen duela Tokiko Gobernu Batzarrak emandako diru-laguntzen ordainketak egiteko orduan.

Gure aholkuak:

- *Diru-laguntzak emateko prozedurari buruzko ordenantza orokorra onestea eta plan estrategiko bat taxutzea. Halaber, zaharkituta geratu diren ordenantzak berrikusi edo gaurkotu beharko dira.*

## VI.6. INBERTSIOAK

2012. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (3,75 milioi) ehuneko 49 bete da, eta 2 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 5.

Betetzearen portzentaje hori azken ekitaldietan ikusitako joeraren barruan nabarmentzen da. Kontuen Ganbera honek behin eta berriro gomendatu izan du txostenetan aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealean arabera doitu behar direla. 2012an, betetzearen portzentajea handiagoa da, zeren eta aurrekontua, Udalaren egoera ekonomikoaz jabetuta, irizpide errealistagoekin egin baita, aurreko ekitaldietan baino.

Ekitaldia	Inbertsioen betetzea (%)
2005	26
2006	15
2007	24
2008	25
2009	34
2010	28
2011	22
2012	49

2011rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 55 –hau da, 2 milioi– egin dute behera.

2010eko maiatzean saneamendu plana onestearekin, inbertsio batzuk bazter uzteaz gainera, guzti-guztiak geroratu egin ziren. Inbertsio gutxi batzuk 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietan egin dira; beste batzuk txikiago egin dira, eta zenbateko askoz txikiago batean esleitu dira; beste batzuk egiten ari dira; eta, azkenik, beste batzuk gerarazita daude, Udalaren egoera ekonomikoa oneratu arte. Defizit publikoa gutxitzeko aparteko neurriak direla eta, ezin izan da aurrera jarraitu aurreikusita zeuden eta 2009-2012 urteetarako Toki Inbertsio Planean sartuta zeuden inbertsio gehienekin, ezin izan baita kanpoko krediturik itundu haiek finantzatzeko.

Honakoak dira 2012an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Kopurua
Champiñonera parkea	388.405
Kultur etxea	608.834
Caparroso kalea eta ondokoak zolaberritzea	148.211

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu dugu, bai betearazpen-prozesuan dauden obrena, bai ekitaldian amaitutako obrena, bai eta 2012an esleitutako honako espedienteak ere (BEZik gabeko zenbatekoak):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	2012an betetakoa
Azucarera plazako eta Paseo de Invierno pasealekuko haur parkeetako jolas-eremuetako gainazaleretarako estaldurak hornitzea eta haiek jartzea	Obrak	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	21.074	3	18.968	18.968
Zementua eta mikro-pilotak injektatzea Santa Quiteriako belar artifizialeko lehenengo zelaiaren hondoratzeari konponbidea emateko	Obrak	Zuzena	18.984	1	18.984	18.984

Azkenik, lehenagotik esleituta zeuden eta 2012an amaitu diren honako kontratuen betetzea ere aztertu da:

- Caparroso eta Paños kaleak eta ondoko kaleak zolaberritzea: Udalak eta Uren Batzarrak batera egindako lana da. Esleipena portzentaje teoriko batzuen arabera banatu zen. Egiaztatu dugu amaierako ziurtagiriaren ondotik Udalak uste baino gastu handiagoa egin duela, eta Uren Batzarrak uste baino txikiagoa. Azkenean, guztizko kostua kontratuaren esleipeneko zenbatekoa baino txikiagoa da.
- Erlojuaren Etxea zaharberitzea: Egiaztatu dugu gastuen guztizkoa kontratuaren esleipen-zenbatekoa baino txikiagoa dela.
- Champiñonera parkea: 2012an obra horren gastu guztia amaitu zen.

Eginiko azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

## VI.7. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubideak 35,77 milioikoak izan dira; ehuneko 98 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 2, berriz, kapital-eragiketeki.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (21 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (12 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Diru-sarreren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 88,88koa izan da.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 1 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%),
	2011	2012	2012/2011
1. Zuzeneko zergak	10.854.322	11.358.934	5
2. Zeharkako zergak	812.044	841.519	4
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	8.753.581	9.052.916	3
4 Transferentzia arruntak	13.023.772	12.912.098	-1
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	1.359.356	1.665.273	23
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>34.803.074</b>	<b>35.830.740</b>	<b>3</b>
6. Inbertsioen besterentzea	333.914	274.619	-18
7 Kapital-transferentziak	1.160.169	382.615	-67
8. Finantza-aktiboak	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	-
<b>Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)</b>	<b>1.494.084</b>	<b>657.234</b>	<b>-56</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>36.297.158</b>	<b>35.767.973</b>	<b>-1</b>

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arruntan bitartez jasotako diru-sarrerak nabarmentzen dira. 2011ko ekitaldiarekin alderatuta, alde nagusiak kapital-transferentzietan daude, ehuneko 67 jaitsi baitira. 2011n, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsetik heldutako 694.000 euro sartu ziren; 2012an, berriz, kontusail horretan ez da diru-sarrerarik izan.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%),
	2011	2012	2012/2011
Lurraldeko kontribuzioa	7.157.136	7.634.872	7
Ibilgailuak	1.669.096	1.738.195	4
Lursailen balioa handitzea	426.000	350.401	-18
JEZa	1.589.211	1.629.363	3
Luxu-zergak	12.879	6.103	-53
EIOZa	812.044	841.519	4
<b>Guztira</b>	<b>11.666.366</b>	<b>12.200.453</b>	<b>5</b>

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 1., 2. eta 3. kapituluetan diru-sarrera handiagoak lortu dira. 833.000 euroko igoera izan da.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,259	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga		
Gaurkotzearen koefizientea	2,4-2,9	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	10,76	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazio eta obrak	4	2 - 5

2012an, balorazio-ponentzia berri bat aplikatu da lurralde-kontribuzioaren gaineko zerga kalkulatzeko.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.



## VI.8. HIRIGINTZA

Tuterako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, legelari bat, arkitekto tekniko bat, bost administrari eta obra-zaindari bat.

Udalak ez du kanpoko hirigintza-aholkularitza iraunkorrik. Hala eta guztiz ere obra-zuzendaritzako lanak eta proiektuetako oroitidazkiak idazteko lanak beti kanpoko profesionalak egiten dituzte.

Tuterako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1991n onetsi zen, eta 1996an haren eguneratze bat onetsi zen.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko.

Udalak abiatu ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko izapideak.

2006ko ekitaldian, Hiri Antolamendurako Planaren erredakzioa esleitu zen, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeari egokitzeko.

“Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua” izeneko dokumentuari 2007an eman zitzaion hasierako onespena. Gaur egun, Nafarroako Gobernuarekin Aurretiko Hitzarmena egitearen zain dago, 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera; izan ere, Memoriak zehazten duenaren arabera, abiadura handiko linearen ibilbidea behin betiko zehaztearen menpe dago.

Udalak ez du hirigintza-hitzarmenen erregistrorik, ez eta Udalaren lurzoru-ondarearen inbentario eta erregistro espezifikorik ere; hala ere, Udalaren Lurzoru Ondaretik datozen diru-sarrerara atxikien jarraipena egiten da. Udalak diru-sarrerara batzuk lortu ditu lurzoruaren udal ondareko lursailak salduz. 268.578,63 euro egiten dute diru-sarrerara horiek, eta ez dira ezertarako ere erabili: atxikitako baliabideen bidezko gerakinaren barruan mantendu dira.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzaturiko hirigintza-jarduerak zehazten dira. Hirigintza-jardueren lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugunaren arabera, behar bezala izapidetu dira, oro har.

*Gure aholkuak:*

- *Hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapanetara moldatzeko prozesua osatzea.*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa ezartzea, indarrean den legeriak eskatzen duen dokumentazioarekin.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko azaroaren 19an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas



## Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabakia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen administrazio kontseiluak 2013ko abenduaren 11n hartutako erabakia, "Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa" sozietatearen akzioen % 51, gutxienez, bertako langileei eskualdatzeari buruzkoa. Kontuan hartuta Lehendakartzaren ebazpena, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketarako baimentzeko jarraitu beharreko prozedura (2014ko urtarrilaren 9ko 3. NPAO), honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Ekimena Foru Araubide Batzordeari helaraztea, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabakia

Pedro Ugalde Zaratiegui jaunak, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren idazkari ez-kontseilariak –Espainiako nazionalitateko sozietatea da, helbidea Iruñean (Nafarroa) dauka, Yanguas y Miranda kaleko 27 zenbakiko 1. solairuan; Nafarroako Merkataritza Erregistroan izena eman emanda dago, 1486. liburukian, 196. folioan, NA-29542 orrian, eta 8/71-018360 zenbakiko I.F.K dauka–,

Egiaztatzen dut:

1. Sozietatearen administrazio kontseiluaren akten liburuan jasota ageri dela sozietatearen lehendakariak 2013ko azaroaren 22an idatziz deitutako bilkurarena, zeina 2013ko abenduaren 11n egin baitzen Nafarroako Jauregiko Lehendakarien Aretoan –Carlos III.a etorbidea, 2, Iruña (Nafarroa)–,

ondoren datorren gai zerrendari jarraikiz. Bilkura Yolanda Barcina Angulo andreak jardun zuen lehendakari moduan, eta akta hau izenpeztzen dudanak, berriz, idazkari moduan:

1. Administrazio kontseiluaren idazkaria izendatzea, kasua bada.

2. Lehendakariaren txostena.

3. 2013ko hirugarren hiruhilekoari buruzko finantza-egoera orriak, eta 2013ko itxieraren gaineko aurreikuspena.

4. Ekintza Planaren bidez lortutako emaitzei buruzko informazioa, 2013ko irailaren 30ekoa, eta ekintzen bilakaera.

5. 2014ko aurrekontua, eta sozietateen merkataritza-planen gaineko informazioa.

6. Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroaren zerbitzua kanpoan kontratatzea.

7. Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoko Korporazio Gobernuari buruzko informazioa eta harreman-mota.

8. Intereseko beste gai batzuk.

9. Eskariak eta galderak.

10. Akta idatzi, irakurri eta onestea.

Administrazio kontseiluko honako kide hauek bertaratu dira: Yolanda Barcina Angulo andrea, Anai Astiz Medrano jauna, Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea, Koldo Amezketa Díaz jauna, Javier Antoñana Gastesi jauna, Reyes Caladrón Cuadrado andrea eta Juan Franco Pueyo jauna.

2. Parte-hartzaileek honako hau erabaki dute, aho batez, gai zerrendako seigarren puntuari dagokionez:

"6. Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroaren zerbitzua kanpoan kontratatzea.

Lehen. Beren interesa espresuki adierazi duten Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroko langileei eskualdatzea gutxienez ere konpainia horren akzioen % 51, zeinak Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoaren jabetzakoak baitira, negoziazio prozesutik ateratzen den prezioan, zeina, betiere, ez baita izanzen konpainiaren gaineko azken baloraziotik ateratzen den prezioa baino txikiagoa.

Bigarrena. Sozietatearen zuzendari nagusi Jorge San Miguel Induráin jaunari ahalmena ema-

tea sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz egin ditzan akordio hau betetzeko beharrezkoak diren zuzemen guztiak, notarioaren aurrean agertuz eta kasuko eskritura publikoa formalizatuz, kasua bada zuzentze-ahalmenarekin, eta dagozkion erregistroetan izena emateko ondoren.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuari baime-na eskatzea lehendabiziko akordioan aipatutako akzioak eskualdatzeko, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.1 artikulua aplikatuz, foru lege hori dela-eta abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.

Laugarrena. Nafarroako Gobernuko Lehendakartzara igortzea lehendabiziko akor-

dioan aipatutako eskaera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.2 artikulua aplikatuz, foru lege hori dela-eta abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.”

**3.** Administrazio kontseiluaren akata hori aho batez onetsi zen bilkura bukatutakoan.

Horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Iruñean, 2013ko abenduaren 12an.

Lehendakaria: Yolanda Barcina Angulo andrea.

Idazkaria: Pedro Ugalde Zaratiegui jauna